



# FUNTSEZKO JARDUERAK

7. Taldea  
Elaia Altuna  
Eneritz Higuero  
Enara Losada  
Saioa Martinez  
Nora Sierra

Jardueren atalean garrantzitsua da enpresa barruan egin daitezkeen zereginak identifikatzea. Lehenik eta behin, gure produktua, hortzetako eskuila diseinatuko dugu eta logoa eta produktua pertsonalizatu dugu. Geroago, diseinatutako hortzetako eskuila beste enpresa baten eskuetan utziko dugu, haiek produktu hori ekoiztu dezaten.

Horretaz gain, enpresaren webgunea eta online denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak bermatuko ditugu. Onlineko salmentari garrantzia emanaz. Horrekin batera, salmentak aurrera joan dezaten, produktuen banaketa garraiatzearen atalak ondo funtzionatu behar du. Beraz, esan dezakegu funtseko jarduerak aipatutakoak direla.

Enpresaren jarduera berehala merkaturatu beharreko produktu eta zerbitzuei buruzko adierazpena egin ahal izateko, bezeroei gure produktua non salduko den eta nola salduko den aipatu behar zaie.

Gure bezeroek erraztasuna izateko, gure produktua online eskuragarri izango dute. Bestetik, ahalik eta supermerkatu gehienetan saltzea gustatuko litzaiguke, arrakastatsuagoa izan dadin. Hori dela eta, produktu naturalak, organikoak, iraunkorrak eta ingurumenarekiko lagunkoiak izango dira. Era berean kontsumitzeko joerak erakargarri egingo ditu bezeroak eta gure hortzetako eskuila maizago erosiko da. Beranduago, gure produktuak ospea lortzen duenean, farmazietan eta "eco" dendetan salduko dugu. Marketing-aren laguntzaz, Saioa, honetaz arduratuko da.

Gure enpresaren muina osatzen duten baliabideak babestu egin behar ditugu, hirugarren sektoreko espazioan sailkatzen delako eta gizarteari zerbitzuak ematen dizkioten jardueren eta hartzen duten lurraldearen arteko elkarreraginen ondorio izan direlako.

Gure hortzetako eskuila funtziona dezan eta aurrera jarraitzeko helburuarekin, beharrezkoa izango da publizitatea eta deskontuekin jarraitzea jendea erakartzeko. Hori egin ahala, beste deskontu batzuk eskainiko diegu dauzkagun bezeroak baino gehiago lortzeko helburuarekin.